

Pernando dala-ta

1964ko JAKIN aldizkaritik

Orduko eran, duela 50 urte idatzia, nahiago izan dut ez aldatzea, batuaren aurreko zesuman genbiltzaneko idazkera errespetatuz.

Aurtengo urte onetan Pernando Amezketarra jaio zeneko berreun urteak ospatzen ditugunez, JAKIN'ekook ez dugu ixilik egoteko gogorik. Izan ere, ez dute gaur etxe askotan gurean daukagun bezelako prendarik edukiko.

Bai, ba. Artikulu honen siñatzailea, Amezketakoa dugu, eta ain zuzen ere, Pernando-tarretakoa. Bi adar ditu Pernando-ren arbolak, eta bi oietako baten akatza dugu au, bosgarren belauneko, alegia.

Orregatik, Pernandogandik datorkio artikulu onen egilleari bigarren apellidua: Bengoetxea. Beraz, amaren partetik dugu Pernandoren seme.

Pernandotarra denik-edo antz ematen zaion? Erantzun bakarra: Prailletan ez dago Pernandokeririk egiteko aukerarik.

Eta, Berak diona Pernandorik izan ez dela diotenentzat- "Ura izan ez balitz, ni ere ez nintzan izango..."

(Horrela aurkeztu nindun Pello Zabaletak, aldizkarian)

Pernando Amezketarra dala-ta hamaika lantxo argitaratuko dira noski aurtan. Izan ere, guziz herrikoia, jende artekoa izandu zen gure Pernando. Askok beharbada, urrun xamar ikusten dute.

Baina, berez, ondo jende artekoa izan da, ta oraindik ere bixibixi dago herriaren buruan.

Amezketar amona bati hala entzuna diot aspaldi: "Bai, Pernandok irabazlegea bere barruan zemakian ondo ere; askok lanean kastatu behar dutena, harrek etzeukan ikasi behar haundirik. Lixto jaio, horratio!"

Jakiña, gehienetan bere hixtorio ta kontuzaharrak osatu dute herriak buruan duan Pernandoren figura-moldea. Horregatik nunbait oso txistoso ta hixtoriodun arkitzen da bere kontzetua.

Benetan, nolana ere ezta egiten horrelako gizon baten ideia. Nahi ta nahi ez, Pernando bati horrenbesteko prendak jantzi dizkiotenerako, tronko-gerri

ezpal haundikoa izan behar zuan; maramara ta itxumustuan etzaio edozeiñi eransten horrelako kontu-sorta.

Baiña puntu honetan, gustatzen etzaidan gauzatxo bat argitu nahi nuke.

Zenbait periodikuetan irakurri dut, "Quevedo vasco" edo horrelakotsu bat dela gure Fernando. Etzait gustatzen, egia esan. Edo Quevedo-ren konzetua ondo eldu gabe daukat -ta hala izatea nahi nuke- edo Fernando Quevedo-rekin neurtzen dutenak ez dauzkate bi konzetuak garbi. Beste aldetik kontuan izan behar da bai, konparazio mota askok adarraren puntaren puntuko hostroan dutela konparamendu.

Etzaidala gustatzen nion, ta izan ere, berdekeri bat iñori erantsi behar zaionean, Quevedo-ri pehatzen zaio, beharbada gaztelerak berdekeri gehiago duelako. Jainkoak Euskaldunori eman beharreko berde ta muzker guzia gure barrutietan agortu zuan nunbait ta, Berari eskerrak eman behar diozkagu, gutxi gelditu zaigu alpemik kastatzeko.

Ta hain zuzen ba, gure Fernando etzan asko famatu bere berdekeri berritsuetatik, ta "Quevedo vasco" horrek, eztakit ba.., muzkertxu edo uzten du, halako "enplasto ferde" bat ematen dio Fernando-ren figurari.

Bertsolariak, jende aurrean mintzo denean, ez dizu sekula santan mingaiñik askatuko alderdi hortako gehiegikeri bat botatzeko, bere aurreko populua pixu baitzaio. Ta Fernando bertsolaria gendun gero, izandu ere! Hauxe bai satisfazio osoz irakurri dudala: alegia, gure A. Antonio Zavala'k dionez, ezagutzen ditugun bertsolari osotuetako zaharrena dela gure Fernando. Honetxek bai heman zidala poza ta saltogura. Iñor siñistekotan gure A. Zavala siñistu dezakegu puntu honetan, ondo ixturiatutakoa baita bera.

Dana dela, beharrezkoa genduke aurtengo honetan Pernandoren bizitz ta egiteak -milagro koloreko guziak-, ta batez ere bertsoak, ta hobe bere gaian idatzi dana ere, liburu batean argitaratzea. Pernandok ez luke hornenaje hoberik jasoko ta behin salgai agertu ezkerok, ez litzake seguruasko argitalpena hautsartean galduko.

Hemen, JAKIN-en argitaratuko dut, Jainkoa lagun, urte azkenerako lantxo bat gure Pernandoren aldetik jakin dezakeguna agertuaz. Asmoa behintzat hala dut. Ahalez ez al naiz flakiatuko.

Iraileko alean

Esaera zaharra dugu: Euskaldun jator, agindua zor. Ea ba, aurreko JAKIN'ean egindu nuanez, gogoa berritzen dudan. Lan honek txukuntasun apur bat nerez du noski. Saia nadin.

Atzo izan nintzan gure Pernando-ren herrian. Omenaldi polita angoxea. Meza nagusi, dantzari, trikitixa, bertsolari, lagunarte ta bazkari, txistulari, bertso ta itzaldi, zer izan zan hura? Egualdi ona. Jendea erruz. Arratsaldeko seiretan ere kamioa betean zijoazten motorrak. Pesta bikaiña benetan!

Xehetasunak aparte, berebiziko ornenaldia jaso zuan Pernando bertsolari zaharrak. Ta izan ere, hauxe izan zan gure Pernando-ri eman zitzaion kolore berezia; bertsolari alegia; "ezagutzen ditugun bertsolari zaharretan lehenena" - A.Zavala-rekin-. Juan Mari Lekuona apaizaren sermoiak poliki goratu zituan bertsolariak.

Baiña arantza baten ziztada jaso nuen bihotzean egun horretan.

Alegia, liburu bat agertu zan Amezketan Pernando-ren gain ta . . erderaz! Nik parte hartu dutalarik --egille bezela prantatu naute jende aurrean-- miñ zorrotza nuen euskeraz ezin egin ahal izatea. Jakiña, A. Zavala jesulaguna zen euskeraz "Auspoa"-n argitaratzekoa, ta oraindik ez du prestatu nunbait.

Nik berriz, egiaren lagun, ez dut nere kaskotik atera liburu hori. Donostiko "Publicaciones Vardulia" delakoak liburutxo horren lana eskatu zidan. Noski, euskeraz izan balitz hobe. Gustora egingo nuen hartara egin beharreko lana. Baiña, erderaz zala-ta, uskeri horregatik zabaldu gabe utziko nuen? Villasantek eginberria zuen Arantzazuko Birjiñari buruz lehen aleetakoa. Pernandok merezi zuela gloria hori ta horregatik bakarrik saiatu nintzan, egia esan nahi badut. Erdaldunek ere izan dezatela gure bertsolari zaharraren berri.

Hauxe esateko gogoia nuen ba, nere jokabidea zuritzeko, asko

baitziran kexatzen ziranak, arrazoiez noski, baiña nik ere ba-nuen nerea.

Ta goazen Fernando-gana.

Pernandok aurten biziko balitz, beharbada matrallak gorrittuta ikusiko zituan makiñatxo bat aldiz. Izan ere, gauden honetan zer hitzegiñ ez da gure amezketarraren gain. Euskal errebixta ta erdal periodikuetan ere maiztxo ikusi dugu bere izena.

Askok Fernando gezurrezko zer bat izandu zela uste dute. Txorimaio edo kukuxo mitolojiku bat. Alegia, arraza ta herri bakoitzak bere iturriko esaera ta gertakizun guztien txorten ta ardatz bezela aupatzen duten horietako bat. -Pero ¿ya existió, o qué? zioten batzuk.

Baiña jarri zagun azkar honoko hau: Fernando gizon bat izan zen, anka ta buru, ondotxo islatua gaiñera. Adimen zorrotzekoa, eskolan ankarik sartzen deskuidatu etzana, baiña jaiotz aurretik buru argiaskoa nunbaitetik bildu zuana. Gero, herria bera, arraza, abenda izan da ontzat harturik, euskaldun konsagratu duana. Konsagrazio honek eman dizkio bere izenari lotuta dijoazkion zenbait hixtori ta kontu.

Bizitzako gorabeherak

Gaiñerako guztiak bezelaxe jaio zan noski Fernando: txikitxiki, guriguri, ta larrugorrian. Baiña Amezketa-n jaio; ta jaio ez-ezik hil eta enterratu. Ta izenari ondo itsatsirik gelditu zaio gero bere eulisherria. . .

Nungoa naizelakoa galdetu didatenean, azkar erantzun dut nik beti "amezketarra" naizena ta pozikasko entzun ere harako konpromisoko galdera: "Pernando ezagutuko huan ba". -"Bai, hilda andik eundaberrogei urtera".

Amezketan jaio, Amezketako elizan bataiatu... hau dena JoxeMari Oterminen eskutik jakingo dugu...

Pernando jendartean

Jendeak modu askotara ikusten du Fernando. Beharbada erantsi zaizkion hainbeste kontuzar eta hixtoriengatik izango da, baiña Fernando ez dago batere klaro herriaren buruan. Jakiña, gizon haundia izango zan noski, bestela etzizaizkion pehatuko honenbeste kontu.

Artetxe jaunak ere esan zuan bere "Mi Guipúzcoa"-n: Herriak Fernando bat egin du; pena ta tristurik gabekoa, bizitzan seriotasunik ezagutu etzuana. Baiña baserritarrentzat, bestelakoa da Fernando: baserritarrak humore piña zertzen duan gtzontzat jotzen du Fernando.

Berari pehatu zaizkion kontuak? Makiñatxo bat izan behar dute. Hala egiten da pertsona ezagun jatorrarekin. Ezaguna da Etxegaray'k aitatzen duan harako hura: Gau batean berandu etxeratuta, emazteak aterik ez iriki nahi-ta, nola harrizapal bat uretara bota zuen. Hixtori hau bera, oriente aldeko kontuzaharretan agertzen da. Pamili arteko begirarnendu onari begiratzen badiogu: bederatzi ume ta bi nexka alabordekotzat onhartuak zituen Pernandok. Serio bizi ta portatu behar halako pamilian...

Pernandoren egia

Jendarteko Fernando ikusita gero, ea zertzem dugun bere personalidade apur bat. Iztueta, Artetxe ta Etxegaray jaunengandik ta neri iruditzen zaitenarekin.

Esan dugunez, Pernandok etzuen ikasi tetrak erabiltzen. Hau gauz jenerala zen orduko bertsolarietan. Letrak ez jakin izana, azkar erremediatzen zuten bai, buru zorrotasunarekin.

Bere bizitzan ta lanean, minan eta artzantzan ibili zen. Bertsoan ere bai noski. Bere hixtorietako askok esango digutenez, perira ere maiztxo biltzen zan. Gaiñera, bere bertsolari pama zalata askotxotan ibilli behar zuan bertso

kantatzen herrietako pestak alaitu beharrez. Honek argituko lizkiguke apaiz ta pralle jendeekin zituan hartuemanak. Gaiñera, herrian bertan ere apaiz-etxetik urbil bizi izandu zen.

Honekin esan genezake etzala gure Pernando jendeak uste duan bezin alperra, ta gutxiago bazkalordurako beti prest apaizetxera urbiltzen zana. Bestalde, Errosari'oko Amaren kofradian sartuta arkitzen dugu herriko paperetan.

Etxegarayk ta Artetxek oso kariñoso ikusten dute Pernando´ren pertsonalitatea, bere bertsolari zera dala-ta. Iztueta zaldibiarrek ezagutu zuelarik argitasun bat edo beste ematen digu bertso munduan ibili zeneko apustu batzuk kontatuz. Azpeitikoan, ez zuten hain gozo hartu, gauez balkoipera maxiatzen etorri zitzaizkionean, baina jokabide guztiz prudentziazkoz erantzun zien: etzan Pernando edozein moduzkoa.

Iztuetak berak kontatzen digu Tolosako karnabaletan nola izan zen bere lagun Zabala amezketarra alboan zuela. Asko ixtimatzen zituzten biak ere. Herriak artea ta umorea nahi ditu. Ta bertsolari bat halamoduzko bizitza damarkiana bada, laixter baztertuko du herriak berak.

Herriak bertsolari humilla ta apala ditu gogoko. Halakoxeak dira jendearen gustoko.

Ba, Pernandogana zuten eta gaur bertan gordetzen zaion errekuerto ona ikusita, eztaukagu personalidade haundi bat zala onhartu besterik. Erremeriorik gabe gaiñera.

Amezketan oraindik bertsolari pama ta izena ditu gailen. Baita ere bizitz errexeko gizona zala. Guziekin ondo konpontzen zana, errita ta sesio gabekoa, mokadua irabazteko eskuak hainbeste burua erabiltzen zuan gizon herrikoia.

Beste proba bat honoko bertso honek damaigu. Bertsoetan ari zirala, besteak bere pobreza aurpegiratu zion. Alegia, Pernandok etzuala behiñere urrerik izango. Etzuen ezezkorik bota Pernandok. Baiña bere nortasuna zertzen duana dugu bertso hauxe. Begira:

Ondo agirian dago
errenta nerea,
kantuz ez det nik sartzen
poltsara urrea,
ez da errotan ere
karga laborea;
agirian dago, bada,
naizela pobrea.
Gauza gutxi daukat nik
etxean gordea...
detanarekin pasa
eiten naiz ordea.

Artetxe-rentzat hauxe da euskal poesiaren ederrenetakoa. Ta egia esan, benetako zirrara ematen du ahapaldi honetxek. Begien aurrean jartzen du bere pobreza, trixte, baiña pozik errematatzen du: "detanarekin pasa eiten naiz ordea". Etzen jendeak askotan zertu duan parraegille alperra, ez. Bertso honek argi erakusten digu Pernandoren errealitatea; humil, apal, pobre, ta berearekin konforme ta kontentu ere. Hauetxek izaten dira jendearen alde onekoak. Hementxe ikusten dut nik Pernandoganako onikusiaren ziorik nagusiena.

Bere buru erreztasun ta zorrotza, berriz, txarteletako harako zortziko famatu harrek emango digu, apaiza ere nahiko bertsolaria izanik, Trinitadearen galdera egiten dionekoak, alegia.

Nola sinisten dedan
arrazoiarekin,
orain esango diot
sagartxo batekin.
Usai ta saborea
kolorearekin,
horra iru jenero
gauza bat-batekin.

(honela bukatzen nuen JAKIN aldizkariko lana,

orain 50 urte)

Ta honela, Pernandoren personalitatea islatu xamarra ikusten dut nik. Gauza osoagoa espero dut egingo duela A. Zavala jesulagunak bere Auspoako liburuan. Benetan itxaron diot gusto guztiarekin. Merezi baitu hauxe gure Fernandok.

Amezketan, 2014ko martxoaren 19an
Pello Zabalak